

15 ZENBAKIDUN ORDENANTZA FISKALA

ORDENANTZA HONEK HURRENGO ZERBITZUAK ESKAINTZEAREN ONDORIOZKO TASAK ARAUTZEN DITU, HAIN ZUZEN, EUSKARA IRAKASTEARI, ETXEZ ETXEKO ETA HIRUGARREN ADINEKOEN LAGUNTZARI, ETA KULTURA ETA KIROLARI DAGOZKIONAK.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Foru Arauean aurrikusitakoari jarraiki, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzeko dagoena, Udal honek, Eranskinean zehazten diren zerbitzuak eskaintzearen eta jarduerak egitearren tasak ezarri eta galdatzen ditu, Ordenantza honetan agertzen diren terminoen arabera, izan ere, eranskin hura ordenantza honen zati besterik ez baita.

2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. Artikulua.- Zergapeko egitatea dagoela ulertuko da, hain zuzen, Ordenantza honetan zehaztutako zerbitzu eta jarduerak Udalak berak edo horren Erakunde Autonomoek eskaini edo egitean.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Bizkaiko Lurraldeko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 34 artikuluan agertzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte, edo zerbitzu edo jarduera horren ondorioz, onuradun edo haren eraginpean suertatzen badira.

5. Artikulua.- Tasak ordaintzeko obligazioa dute:

- a) Partikularren eskariz egiten diren zerbitzu edo jarduerak direnean, eskari hori egin dutenek.
- b) Partikularrek eskatu gabe egiten diren zerbitzu edo jarduerak diren kasuetan, baina horien ekintzetatik edo ezegitetatik ondorioztatuak balira, aipatu ekintza edo ezegitea atxiki lezaiekeenak.

IV.- SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

6. Artikulua.- Salbuespenak eta beste onura fiskalak, Foru Arauetan ezarriakoaren menpe, egongo dira.

V.- ZERGA OINARRIA

7. Artikulua.- Tasaren zerga-oinarria, jarduera edo zerbitzua gauzatzen den bakoitzean, sortuko da, hain zuzen, Eranskinean agertzen diren terminoen arabera.

VI.- KUOTA

8. Artikulua.- Zergaren kuota, Eranskinean ezarrita dagoenaren arabera, tarifa baten aplikaziotik eratorritako kopurua, edo horretarako ezarritako kopuru zehatz bat izango da, edo bi prozedurak batera aplikatzeetik ondorioztatzen den kopurua.

VII.- ZERGAREN SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. Artikulua.- Tasa, zerbitzua edo jarduera egiten denean, sortzen da. Ondorio horretarako, zerbitzua edo jarduera, horretarako eskaria aurkezten denean, hasten dela ulertzen da.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. Artikulua.- Udalak kontzeptu bakoitzagatik legokion likidazioa praktikatuko du, eta indarreango zerga bilketako arautegian ezarrita dagoen araberako kopurua sartuko da, salbuetsirik egonik, hala ere, Eranskinean barne sartutako arau partikularretan dioena. Edozelan ere, Udalak tasa horiek eska ditzake autolikidazio erregimenean.

IX.- TASEN KUDEAKETA

11. Artikulua.- Bizkaia Lurralde Hiztorikoko Zergari buruzko Foru Arauan eta hori garatzen duen arautegian aurrikusitakoa hartuko da kontuan, bai Ordenantza honetan araututako Taseen likidazio, bilketa eta ikuskapenerako, bai zerga-hausteei buruzko kalifikaziorako, eta kasu bakoitzean, dagozkion zehapenen zehaztapenerako.

X.- XEDAPEN IRAGANKORRA

Urriaren 8ko 9/1998 Foru Arauaren 3. Atalean, Xedapen Iragankor bakarrean, ezarritakoaren arabera, zeinak ekainaren 30eko 5/89 Foru Araua aldatzen zuen, Ordenantza honetan araututako tasak ez dira jakinarazpen individuala egiteko baldintzaren menpean egongo, Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 100. artikulua dioen moduan, baldin eta aldizkako izaera badute, eta tasaren kuota bat baldin badator ordainketa egiteko obligazioa duenarekin, eta prezio publikoaren zenbatekoarekin, hain zuzen, udal eskuduntzakoak diren zerbitzu publikoak eskaintzearen edo jarduerak egitearen, eta 1999ko abenduaren 31an indarrean daudenak badira.

Ondorio horietarako, errezibuaren ondoriozko aldizkako kobrantzen tasei dagokien zenbatekoa bat dator, aurretik indarrean egon diren prezio publikoekin; horri hala ere, Basauriko Udalak, ondorio horretarako, izaera orokorrekin onetsi duen gaurkotze-kopurua gehitu behar zaio.

XI.- AMAIERAKO XEDAPENA.

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

ORDENANTZA HONEK HURRENGO ZERBITZUAK ESKAINTZEAREN ONDORIOZKO TASAK ARAUTZEN DITU, HAIN ZUZEN, EUSKARA IRAKASTEARI, ETXEZ ETXEKO ETA HIRUGARREN ADINEKOEN LAGUNTZARI, ETA KULTURA ETA KIROLARI DAGOZKIONAK.

E R A N S K I N A

I.- BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIA.-

IKASTAROENGATIKO KUOTAK, 2008/2009 IKASTURTEA:

Modulua. 1,06 euro ordu/ikasleko

UDAL EUSKALTEGIAREN DIRULAGUNTZAK

Sei motatako laguntzak emango dira:

1.- Bertaratzeagatiko dirulaguntza

Ikasle orok maila bakoitzeko matrikularen %50a jasotzeko eskubidea izango du, aprobetxamendu egokia izan eta klaseetara %90an bertaratu balitz. Horretarako ikasleak ez du inolako eskaririk aurkeztu beharrik izango, izan ere Euskaltegiak egingo baitu itzulketa, behin ikasturtea amaitutakoan eta aprobetxamendua eta bertaratzea egiaztatu ondoren.

2.- Beka

Baldintzak:

- Familiako urteko sarrera guztien kopuruek ez dute, 2007 urtearen barruan, Aginduaren taulan agertzen direnak baino handiagoak izan behar, hain zuzen, unibertsitatekoak ez diren mailetako ikasleak eskolaratzeko helburuz, ikasketa-laguntzak arautzen dituen Aginduan agertzen direnak.
- Ikasleek, gutxienez, klaseen %90era bertaratu behar dute.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Ikaslearen N.A.N.ari dagokion fotokopia.
- Errentaren azken aitorten osoen fotokopiak, eskatzaileari dagozkionak, edo bere kasuan, errentaren zerga-likidazioa eta familiaren erroldatzea.

Errentaren aitortpena ez balitz egingo, aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Ikaslearen N.A.N.ari dagokion fotokopia.
- Foru Aldundiak egindako ziurtagiria, non errentaren aitortpena ez dela aurkeztu egiaztatuko den, eta familiaren erroldatzea.

Bekaren zenbatekoa matrikularen %75ekoa izango da, eta transferentzia bidez itzuliko da, behin ikasturtea amaitutakoan, eta bertaratzea egiaztatu ondoren.

Bi hauetako edozein laguntzarako eskubidea izateko, ezinbestekoa da Basaurin erroldatua egotea. Badauzkagu baita dirulaguntzak, Etxebarri, Galdakao eta Arrigorriagako ikasleentzat.

3.- 0 eta 12 urte arteko umeen gurasoentzat, eta adin horretako umeak zaintzeko lanak egiten dituzten pertsonentzat dirulaguntzak.

Baldintzak:

- Adin horretako umeak edukitzea edo horiek zaintzeko lanak egitea.
- Klaseetara %90ean bertaratzea.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Gurasoen kasuan, NANaren fotokopia eta familia liburua.
- Zaintzaileen kasuan, NAN fotokopia, umearen familia liburuaren fotokopia eta umearen gurasoek sinatutako dokumentua.

Dirulaguntzaren zenbatekoa matrikularen %75ekoa izango da, eta transferentzia bidez itzuliko da, behin ikasturtea amaitutakoan, eta bertaratzea egiaztatu ondoren. Dirulaguntza hau jasotzeko eskubidea izateko, ezinbestekoa da bai umea bai gurasoak Basaurin erroldatuak egotea.

4.- Dirulaguntzak Basauriko udalerriko elkarteetako begiraleentzat eta beste langileentzat, nahiz boluntario nahiz saria jasotzen dutenak izan.

Baldintzak:

- Elkarre bakoitzeko, gehienez, bi pertsona onartuko dira.
- Klaseetara %90ean bertaratzea.
- Elkarreak bere egoitza Basaurin eduki behar du, eta bere lana udalerrian garatu behar du.

-

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Lehendakariak egindako egiaztatzea, non adieraziko den zein eginkizun burutzen duen eskatzaileak elkarre barruan.

5.- Basauri udalerriko denda eta establezimenduetako titularrei eta enplegatuei emateko dirulaguntzak.

Baldintzak:

- Denda edo establezimenduek beren jardura Basauriko udalerrian garatu beharko dute.
- Klaseetara %90ean bertaratzea.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Udalerriko saltoki edo establezimenduetako tituluak diren kasutan, Jardura Ekonomikoen Zergan alta eman deneko fotokopia.
- Udalerriko saltoki edo establezimenduak diren kasutan, lan-kontratuaren fotokopia.
- Ikasleari, maila bakoitzeko %75a itzuliko zaio.

6.- Familia unitate bereko 2. 3. eta gainontzeko kideentzat dirulaguntzak.

- Familia unitate bereko bi kidek Euskaltegian balebiltza epealdi berean, kide horietako bakoitzak matrikularen %10eko beherapena izango luke.
- Familia unitateko hiru kide edo gehiago izango balira, horiek %30eko beherapena izango lukete.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Familia unitate berekoak direla egiaztatu ahal izateko, familia erroldatzeari dagokion egiaztagiria ekarri behar dute.

Helburu horrekin berarekin beren enpresa edo erakundearen aldetik laguntzak jasotzen dituzten ikasleek, baldin eta laguntza hori %100ekoa bada, ez dute Udal Euskaltegiaren laguntza jasotzeko eskubiderik izango.

Ikaslea egunean egon beharko du Basauriko Udalarekin dituen zerga betebeharretan.

II.- PERTSONA NAGUSIEN EGOITZA

BASAURIKO “ETXE MAITIA” PERTSONA NAGUSIEN UDAL EGOITZAREN BIDEZ, LAGUNTZA ETA EGONALDIARI DAGOKION ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIKO TASA.

TARIFA

Ordenantza honetan araututako tasa finkatzeko, hurrengo egoerak izango dira kontuan:

a) 2008-1-31 ARTE SARTU ZIREN ETA BEREN KAXA BALIATZEN DIREN PERTSONEN EGONALDI IRAUNKORRAK

Beren kaxa baliatzen diren pertsonen egonaldi iraunkorrak: 1.329,77 euro

b) 2009-1-31tik AURRERA SARTUKO DIREN ETA BEREN KAXA BALIATZEN DIREN PERTSONEN EGONALDI IRAUNKORRAK

2009 urtean, beren kaxa baliatzen diren Pertsonen egonaldi iraunkorra: 1.450,00 euro

c) ALDIBATEKOEDO BEHIN BEHINEKO EGONALDIAK

Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako prezio publikoaren arabera, menpekoak diren pertsona nagusien egoitzako foru zerbitzu publikoa eskaintzeagatik, aldi bateko egonaldian, pertsona zaintzaileek eta familiek atsedeen apur bat hartzeko (abenduen 20ko 203/2005 Foru Dekretua)

d) LAGUNDUTAKO PERTSONEN EGONALDI IRAUNKORRENGATIK

Bizkaiko Foru Aldundiak, behingoan gertatzearen, laguntza-hartzaile gisa ezagutu dituen pertsona erabiltzaileak, foru arautegiak ezarritako prezio publikoa ordainduko dute, menpeko pertsona nagusien egoitzako zerbitzu publikoa arautzen duen arautegiak hain zuzen (abenduen 16ko 11/2005 Foru Araua eta abenduaren 20ko 209/2005 Foru Dekretua).

III.- KULTUR ETXEA.-

A) ARTE PLASTIKAZKO IKASTAROAK

- a).- Hilabeteko arrunta: 28,81 euro.
- b).- Langabezian edo ikasle-txartela duten ikasleen hilabetekoa: 14,41 euro.
- c).- Tailer batean baino gehiagotan matrikulatutako ikasleek, % 15eko deskontua izango dute.
- d) Basaurin erroldatutakoak %10eko deskontua.

B).- EL SOCIAL ANTZOKIAN APLIKATZEKO PREZIO PUBLIKOAK.

1. Sarrera-prezioak

- 1.1. gutxienezko prezioa: 3,70 euro.
- 1.2. - Nagusientzako filmak: 4,70 euro.
- 1.3. Haurrentzako filmak 3,70 euro.
- 1.4. Ikuslearen eguna: 3,70 euro.

Aipatu tarifak gehienezkoak dira, eta kasu zehatzetan murriztuak izan daitezke, hori egoki litzatekeen kasuan, dagokion Erakunde Autonomoko zuzendaritzak horrela proposatu, Lehendakariak bere oneritzia eman, eta Gobernuko Juntari horren berri emanda.

2. El Socialen lagunen urteko kuota: 42,78 euro.

3. El Social lagun gaztearen urteko kuota: 23,63 euro.

4. El Social Antzokiaren alokairua/egun osoan: 2.238,58 euro.
El Social Antzokiaren alokairua/egun erdian: 1.119,29 euro.

El Social Antzokia alokatzeko kuota hori, bai egun erdikoa bai egun osokoa, areagotu egingo da, inguruabarrak horrela eskatzen duenean, hurrengo gastuekin: kokapena, errejidoretza eta garbiketa. Gastu horien kostuak, zerbitzu horiek eskaintzen dituzten enpresek indarrean lituzketenak, izango dira.

5. Deskontuak:

El Socialen lagunen elkarteak	35%
10 pertsona baino gehiagoko talde egiaztatuak	30%
Ikasleak direla egiaztatzen dutenek, bai Gazte Txartelarekin, bai hitzarmena sinatutako beste motako gazte-txartelekin.	30%
50 pertsona baino gehiagoko talde egiaztatuak	50%
Prensa espezializatu egiaztatua	100%

6. Ikuskizunetarako sarreraren prezio gehiengoa, cachetaren arabera, zehaztuko da.

7. Udalak sustatu edo proposatutako beste edozein jarduera denean, bakarrik funtzionamenduko kostuak edo gastuak ordainduko dira, eta ez dira aplikatuko tarifa orokorrak.

8. Bazkide laguntzailea: 220,41 euro.
Bazkide babeslea: 881,67 euro.

C) IKASTARO EDO JARDUEREN GAINEKO PREZIO PUBLIKOAK:

- gutxienezko prezioa: 6,39 euro.
- gehienezko prezioa: 160,05 euro.

D) UDAL KULTUR ETXEAREN LOKALAK ALOKATZEA

- 18,57 euro.

E) BASOZELAIKO GIZARTE ETXEKO TALDE MUSIKALEI ENTSEGU-GELAK ALOKATZEA.

- ordubeteko entsegua, aurretik erreserba eginda: 7,10 euro.
- ordubeteko entsegua egun berean egindako erreserbarekin 4,58 euro.

F) BEDERATZIETAN DERITZON KANPAINA BARRUKO JARDUERAK

- Sarrera-prezioa 3,64 euro

G) TAILERREI ETA LUDOTEKARI DAGOZKIEN PREZIO PUBLIKOAK

JARDUERA	HILEKO KUOTA (euroak)
ERLAXAZIO IKASTAROA	9,37
TAI JI	12,50
PLASTIKA I (ordu eta erdi/saioa)	8,33
PLASTIKA II (ordubete/saioa)	6,25
BITXIGINTZA IKASTAROA	31,26
ALTZARIAK BERRITZEKO IKASTAROA	29,17
LUDOTEKA	9,37

Ikasleak eta langabetuak: %50eko beherapena
Izena 2 jardueretan ematen bada, %25eko beherapena egingo da.

IV. KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

LEHEN TARIFA: INSTALAZIOEN ABONAMENDUAK.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

ABONAMENDU INDIBIDUALA.

- Egokiro betetako eskaria.

- Karnet neurriko argazki eguneratua.
- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- Kuotaren sarrerari dagokion egiaztagiria, edo bankuz helbideratzeko datuak.

ABONAMENDU FAMILIARRA.

- Egokiro betetako eskaria.
- Familiako kideen karnet neurriko argazki eguneratua.
- Familia Buruaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- Kuotaren sarrerari dagokion egiaztagiria, edo bankuz helbideratzeko datuak.

KASU BEREZIETAKO ABONAMENDUA.

Aurretik adierazitako dokumentazioarekin batera, banakako edo familia-karneta den bezainbatean, honako hau eskatuko da:

- Bere kasuan, eskaria egiten duten pertsonen diru-sarrera maila egiaztatuko duten dokumentuak, eta/edo gizarte-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatuko duen dokumentua, aipatu diru-sarrerak etxebizitza berean bizi diren familia unitateko kideen sarrera guztiak barne hartzen dituela ulertuko da.
- Medikuen aginduz kirol instalazioak erabiltzeko premia egongo balitz, mediku-egiaztagiria erantsiko zaio eskariari.
- Norbanako karnetak emateko sinatzen diren hitzarmenen kasuan, Gazte Txartela edo beste txartelak aurkeztea.
- Familia ugariren onura izateko, familia liburua aurkeztu beharko da, edo egoera hori egiaztatuko duen beste edozein agiri ofizial, gainera, 18 urtetik 26 urtera bitartekoek, ekonomikoki, familia-unitatearen menpekoak direla egiaztatu beharko dute, eta horretarako, desenplegu-egoeran daudela, eta etxebizitza berean bizi direla egiaztatu beharko dute.
- Abegi egindako umeak dituzten familien kasuan, adin txikikoei abegi egiteko gizarte-programetan parte-hartzen dutela egiaztatu beharko da.
- Hurrengo enpresen kasuan, hain zuzen, helbidea Basauriko udalerrian izan, eta baldin eta udalerrian, kirola bultza edo horri laguntzen badiote, eta udalak horiekin hitzarmen bereziak sinatzen baditu; kasu horretan, Basaurin erroldatu gabeko langileak izan, baina udalerrian erroldatutako abonatuena tasa berak izatea nahiko luketenek, aipatu enpresa horretako plantilan sarturik daudela egiaztatu beharko dute.
- Generoaren ikuspegia duten kirol kanpainetan parte-hartzen duten emakumeek, aipatu programetan parte-hartu dutela egiaztatu beharko dute.

ABONAMENDUAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK.

- Abonatu izaera egiaztatuko duen agiria, horretarako egindako karnet izenduna da, zeina norberarena eta inorenezina den. Titularra ez den beste pertsona batek erabiliko balu, hilabeterako erretiratu egingo litzateke aipatu karneta, automatikoki, eta ez luke eskubiderik izango, K.U.E.-aren aldetik, inolako diru-itzulketarik izateko.

K.U.E.ko abonatua izateak hurrengo ondorioak ditu:

- Kirol instalazioetara sarbidea doan.
- Instalazioak erreserbatzeko orduan lehentasuna, hori zazpi egun eta orduerdiko aurrerapenarekin egin dezaketelarik.
- Lehentasuna, K.U.E.-ak antolatutako ikastaro eta jardueretan izena-emateko.
- K.U.E.ak antolatutako ikastaro eta jardueren kuotetan murrizketak.
- %50eko murrizpena Pilotaleku, Padel, Tenis eta pabiloiak alokatzekoan, astegunetan, astelehenetik ostiralera, 7etatik 14etara, eta larunbat, igande eta jaiegunetan 16etatik 20etara.
- Atletismoko pista doan erabiltzea eta Artunduaga Kiroldagiko luzaketa eremua doan erabiltzea.

ABONAMENDUEN BALIOA

URTEKO ABONAMENDUAK

Urteko abonamenduak, edozein datatan izapidetuta ere, urte horretako urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean izango du balioa, hori izapidetzen den datatik hasita, baldin eta urtarrilaren 1a baino beranduago izapidetu balitz.

SEIHILEKO ABONAMENDUAK

Seihileko abonamenduak, edozein izanik ere hori izapidetzen den data, urte horretako udako kanpaina hasten denetik abenduaren 31 arteko balioa izango du, edo hori izapidetzen den datatik hasita, baldin eta udako kanpainaren hasiera baino beranduago izapidetuko balitz.

1.- FAMILIA ABONAMENDUAK:

Familia buruaren izenean ematen dena izango da, eta onuradunak izango dira, horren ezkontidea edo lagunkidea eta 17 urte arteko seme-alabak; bere jaiotzeguna kontuan hartu gabe, barne hartzen ditu eskubide honek, minusbaliotasun fisiko edo mental larriak dituztela egiaztatzen duten seme-alaba guztiak.

Urtekoak	145,00 €
Seihilekoak	108,00 €

2.- BANAKAKO ABONAMENDUAK:

Horrela eskatzen duten guztiek eta 18 urtetik gorako guztiek.

Urtekoak	91,00 €
Seihilekoak	67,00 €

3.- KASU BEREZIAK

3.1. BANAKAKO EDO FAMILIA ABONAMENDUAK, PROFESIO ARTEKO GUTXIENEO SOLDATATIK BEHERAGOKO SARRERAK DITUZTENEAN, EDO GIZARTE LAGUNTZAK (GSG EDO GLL) JASOTZEN DITUZTENEAN.

Abonamenduko kuotaren %60ko hobaria.

Doan izango da, kirol instalazioak medikuaren aginduz erabili behar direnean.

3.2. BANAKAKO ABONATUEK, HITZARMENAREN ARABERA GAZTE TXARTELA EDO BESTE TXARTELEN BAT BALDIN BADUTE, EMAKUMEEN ALTA BERRIEK, GENEROAREN ARABERAKO KIROL KANPAINETAN PARTE HARTZEN DUTENEAN, BASAURIKO UDALAK ETA/EDO KUE ERAKUNDEAK SUSTATUAK.

Abonamenduko kuotaren %20ko hobaria.

3.3. FAMILIA UGARIEK EDO 3.3 EPIGRAFEAN ADIERAZTEN DEN EGOERAN DAUDENAK:

Seme-alabak barne hartuko dira, 26 urtera arte.

3.5. ADIN TXIKIKOAK JASOTZEKO GIZARTE PROGRAMETAN PARTE HARTZEN DUTEN FAMILIAK:

Jasotako adin txikikoak doan izango du, eta baita, familiako laguntzaile batek, baldin eta hori ez baldin bada abonatua, eta jasotze hori irauten duen epealdian.

3,4.- K.U.E.-rekin HITZARMENAK DITUZTEN ENPRESETAKO ENPLEGATUENTZAT.

Udalerrian erroldatutako pertsonak dituzten abonatu-tasa berak izateko onura izango dute.

4.- ERROLDATU GABEKOEN ABONAMENDUAK

Basauriko udalerrian erroldatu gabe dauden pertsonak %30eko gainkargua izango dute beren abonamendu-kuotan.

BIGARREN TARIFA : SARRERAK

1.- URBI KIROLDEGIRAKO SARRERA Sarrera eta erabilera bakar baterako balio du.

Abonatuak	Librea.
Abonatu gabeak	
16 urtetik aurrera	2,40 €
16 urtetik beherakoak	1,25 €
3 urtera arte.	Dohainik

2.- ARTUNDUAGA KIROLDEGIRAKO SARRERA Sarrera eta erabilera bakar baterako balio du.

Abonatuak	Librea.
Abonatu gabeak	
16 urtetik beherakoak	2,60 €
16 urtetik aurrera	4,30 €
3 urtera arte.	Dohainik

3.- IGERILEKUETAKO SARRERA, 15 ERABILTZAILE BAINO GEHIAGOKO TALDEENTZAT, ERABILERA BAKAR BATERAKO.

Abonatuak	Librea.
Abonatu gabeak	
16 urtetik aurrera	3,80 €
16 urtetik beherakoak	2,20 €

4.- IGERILEKUETARAKO 10 SARRERAKO BONUA.

Abonatuak	Librea.
Abonatu gabeak	
16 urtetik aurrera	38,00 €
16 urtetik beherakoak	22,00 €

5.- KIROL IKUSKIZUNETARAKO SARRERA

A maila	15,00 €
B maila	11,00 €
C maila	7,00 €

HIRUGARREN TARIFA : OHIKO ALOKAIRUAK

Erreserbak ordubetekoak direla ulertuko da beti, aurkako zehaztapenik egiten ez den bitartean.

Instalazioak erabiltzeko erreserba horiek egiteko unean ordainduko dira eta eskubide horretaz gozatu aurretik.

Basaurin kokatuak dauden Kiroleko klubak, eskola-ekipoak eta elkarteak, KUE-ko kirol instalazioak programatutako entrenamendu eta lehiaketetarako erabiltzen dituztenean, %10eko deskontuaz baliatu ahal izango dira tarifa honetan agertzen diren prezioekiko.

Basauriko Klubek eta Kirol Elkarteek, urtean behin, areto nagusia doan erabiltzeko eskubidea izango dute, beren Ohiko Batzar Orokorra egiteko.

1.- PILOTALEKUAK.

1. Pilotalekua	5,70 €
1. Pilotalekuko argiaren gehigarria	3,10 €
2. eta 3. Pilotalekuak	3,90 €
2. eta 3. pilotalekuetako argiaren gehigarria	2,10 €

2.- ESTALITAKO PISTA.

Ordu bakoitzeko	18,30 €
Argiaren gehigarria	3,30 €

3.- PABILOIA.

Ordu bakoitzeko	23,20 €
Argiaren gehigarria	4,00 €

4.- PABILOIAREN MODULUA.

Ordu bakoitzeko	9,80 €
Argiaren gehigarria	1,70 €

5.- GIMNASIOA.

Orduko, argia barne dela	10,50 €
--------------------------	---------

6.- FITNESS ARETOA / CICLO INDOOR.

Orduko, argia barne dela	23,00 €
--------------------------	---------

7.- FUTBOL ZELAIA.

Orduko, sarrera barne dela:	
Futbol Zelaia	55,00 €
Futbol 7ko Zelaia	33,50 €
Argiaren gehigarria	6,50 €

8.- TENISA (ORDU BAKOITZEKO)

Estali gabeko tenis-pista	3,90 €
Estalitako tenis-pista	5,70 €
Argiaren gehigarria	2,30 €

9.- MAHAI-TENISA.

Ordua	1,60 €
-------	--------

10.- ATLETISMOKO PISTA.

Abonatuak	Librea.
Abonatu gabeak	31,00 €

11.- ERROLDATU GABEKO ATLETA FEDERATUAK

Banakakoen urteko karneta	35,00 €
---------------------------	---------

12.- SAUNA.

Abonatuak:	
Saioa	3,00 €
10 saioko bonua	27,00 €

Abonatu gabeak	
Saioa	3,70 €
10 saioko bonua	34,00 €

13.- PADDLEA. (ORDU BAKOITZEKO)

Estali gabeko paddela	3,90 €
Estalitako paddela	4,75 €
Argiaren gehigarria	1,60 €

14.- ROKODROMORAKO ETA BOULDER GELARAKO SARRERA

Abonatuak	
ROKODROMO ETA BOULDER GELAKO PASEA EGUNEKO	1,00 €
ROKODROMO ETA BOULDER GELAKO PASEA HILABETEKO	8,90 €
ROKODROMO ETA BOULDER GELAKO PASEA URTEKO	29,50 €
Basauriko mendi-elkartetan federatutako abonatuak	Dohainik

15- TB. ETA BIDEO GELA ERABILTZEAREN.

Orduko, argia barne dela	22,00 €
--------------------------	---------

16- PROIEKTOREA ETA DVD ARETO NAGUSIA ERABILTZEAREN.

Egun erdi bakoitzeko, argia barne dela	65,00 €
--	---------

17.- BILERA GELAK ERABILTZEAREN.

Orduko, argia barne dela	10,50 €
--------------------------	---------

18.- ERABILERA PARTEKATUA DUTEN INSTALAZIOEN ERRESERBA:

Igeriketako kalea	27,00€
Igerileku osoa	90,00€
Atletismoko zuzena eta pista osoa	64,50€
Rokodromoa	23,00 €
Aldagelak	12,50€

KUE erakundearekin itundutako ordutegietan.

LAUGARREN TARIFA : KIROL MATERIALA ALOKATZEA ETA BESTE

Mahai-teniserako palak eta pilotak	1,00 €
Pilotalekuko kaskoa	1,40 €
Baloiak	1,90 €
A lehorgailua	0,05 €
B lehorgailua	0,10 €
Bainuko txanoen salmenta	2,00 €
Takilako giltzaren galtzea	7,80 €
Paddeleko pala	1,80 €
Teniseko arraketa	1,70 €
Arnesa	2,00 €
Teniseko erraketa apurtzea	14,00 €
Padeleko erraketa apurtzea	29,00 €
Megafonia, egun erdiz	97,00 €

1.- PUBLIZITATEA

Ikuskizunaren instalazioetan publizitate estatikoa eta iraunkorra jartzeagatik, horretan lehiatzen diren udalerriko klubek jartzen dutenean, hurrengo kanona ordaindu beharko da:

Publizitatea kokatzeko erabili daitezkeen lekuneak eta gainontzeko irizpideak Kontseilu Zuzentzaileak eta horretarako dauden lege-xedapenek arautu ditzakeen arauen menpe daude.

m ² urteko	50,00 €
-----------------------	---------

BOSTGARREN TARIFA : IKASTAROETAN PARTEHARTZEA.

1.- JARDUERA FISIKOEN GAINEKO IKASTAROAK 21 PERTSONATIK GORA

Abonatuak	
2 ordu astean	16,80 €
3 ordu astean, edo ordu bat astean, hiru hilabeteko ikastaroan	23,20 €
ordubeteko saioa	3,00 €
1,5 orduko saioa	4,40 €

Abonatu gabeak	
2 ordu astean	28,50 €
3 ordu astean, edo ordu bat astean, hiru hilabeteko ikastaroan	37,00 €

2.- JARDUERA FISIKOEN GAINEKO IKASTAROA 20 PERTSONA ARTE.

Abonatuak	
2 ordu astean	23,00 €
3 ordu astean, edo ordu bat astean, hiru hilabeteko ikastaroan	31,50 €

Abonatu gabeak	
2 ordu astean	33,00 €
3 ordu astean, edo ordu bat astean, hiruhilabeteko ikastaroan	41,00 €

3.- JARDUERA FISIKOEN GAINEKO IKASTAROA 12 PERTSONA ARTE.

Abonatuak	
Astean 2 saio	29,00 €
Astean 3 saio	35,50 €

Abonatu gabeak	
Astean 2 saio	37,00 €
Astean 3 saio	43,70 €

4.- JARDUERA FISIKOEN GAINEKO IKASTAROA 8 PERTSONA ARTE.

Abonatuak	
Astean 2 saio	31,80 €
Astean 3 saio	38,80 €

Abonatu gabeak	
Astean 2 saio	41,10 €
Astean 3 saio	48,60 €

5.- JARDUERA FISIKOAEN GAINEKO IKASTAROAK FITNESS MAKINEKIN ETA/EDO INDOOR BIZIKLETEKIN.

Abonatuak	26,40 €
Abonatu gabeak	39,20 €
Saioa	4,20 €

6.- PROGRAMA BATERATUAK: AEROBIC + FITNESS; CARDIOAEROBIC + FITNESS; MANTENIMENTUA + FITNESS; HIDROBIC + FITNESS

Abonatuak	33,60 €
Abonatu gabeak	44,80 €

7.- ESKALADA IKASTAROAK.

Ordubeteko saioa.	
Abonatuak	4,00 €
Abonatu gabeak	5,00 €

8.- HIRUGARREN ADINEKOEN HEZIKETA FISIKOA.

a).- Diru-sarrerak 421,66 € azpitik	Librea
b) 421,66 eta 562,22 € arteko sarrerekin	
Banaka hiruhilabetean	10,00 €

Senar-emazteak hiruhilabetean	15,30 €
c).- 562,22 € gorako diru-sarrerekin	
Banaka hiruhilabetean	16,90 €
Senar-emazteak hiruhilabetean	25,30 €

9.- IGERIKETAKO IKASTAROAK: Matrikula eta ikastaro bakoitzeko

Hiruhilabeteko ikastaroa, 8 pertsona arte:	
Abonatuak	64,40 €
Abonatu gabeak	99,20 €

Hiruhilabeteko ikastaroa, 12 pertsona arte:	
Abonatuak	51,70 €
Abonatu gabeak	80,20 €

Hiruhilabeteko ikastaroa, 12 pertsonatik gora:	
Abonatuak	39,00 €
Abonatu gabeak	60,10 €

Hilabeteko ikastaroa, 3 egun/astean:	
Abonatuak	23,20 €
Abonatu gabeak	36,50 €

adinekoen igeriketa, hiruhilabetekoa:	
Abonatuak	23,70 €
Abonatu gabeak	34,20 €

Bizkarrezurrerako igeriketa, hiruhilabetean:	
Abonatuak	64,30 €
Abonatu gabeak	99,00 €

Aqua-Gim hiruhilabetean:	
Abonatuak	46,60 €
Abonatu gabeak	79,80 €

Eskoletako igeriketa kanpaina	Dohainik
--------------------------------------	----------

Eskolako igeriketa-taldea begirale gabe (ikasleko)	1,20 €
---	--------

Eskolako igeriketa-taldea begiralearekin (ikasleko)	1,45 €
--	--------

Igeriketa berezia, astean saio 1	46,00 €
---	---------

Igerilekuetako jolasak, egunean.	2,20 €
---	--------

10.- SUSTAPENeko TXAPELKETAK ETA KANPAINAK, ETA DENBORALDIKOAK.- Tarifak aurrekontuaren arabera zehaztuko dira.

Oharra: Tarifa honetan agertzen diren prezio guztiak hilabetekoak direla ulertzen da, aurkakoa esaten ez den bitartean.

SEIGARREN TARIFA : PROGRAMATUTAKO ERRESERBAK.

A.- KIROL JARDUERAK: Instalazioko erreserba-prezioaren %170. Sarrerak barne hartzen ditu.

Argiak piztu beharra dagoenean, argiari dagokion gehigarria ordaindu beharko da baita.

B. - KIROLEZKOAK EZ DIREN JARDUERAK.

350 ikusleentzat baino edukiera txikiagoa duen lekua	740 €
350 ikusleentzat baino edukiera handiagoa duen lekua	1.050 €

1.- Zehaztasunak.

Prezioak egun erdi edo egun osorako direla ulertuko da.

Alokatze prezioan ez da inolako elementuen muntaketa eta desmuntaketarik sartzen, ez garbiketarik, eta ez argi eta gainontzekorik.

Ez dira ere kontroleko pertsonalaren orduak sartuko, baldin eta ekitaldia, instalazioa irekita egoten den ordutegitik at, egingo balitz.

INSTALAZIOEN LAGAPENA ERREGULATZEN DUEN ARAUTEGIA, KIROLEZKOAK EZ DIREN EKITALDIAK ANTOLATZEN DIRENEAN APLIKATZEKO.

Eskaria aldeztu aurretik egin beharko da, gutxienez 30 egun lehenago.

Instalazioak laga edo aloka daitezke, baldin eta ez balego inolako kirol jarduerarik programatuta.

Beste erakunde publikoen edo pribatuen eskariak, kasu bakoitzean aztertuko dira, hala ere pribatuei beti kobratuko zaie eta publikoak direnei (eskolak adibidez) ez zaie eskatuko ordainketarik edo gehienez ere lanordutik kanpo lanegitearren sortu daitekeen pertsonal gastua kobratuko zaie.

Garatuko den jarduera ororako, obligaziozkoa da erantzunkizun zibileko eta instalazioari kalteak egiteagatik aseguru egitea.

Aurreko puntuetan adierazitako ez da kontuan izango Udalak berak antola ditzakeen jardueretarako (Dantza-Agerketa, Jaiak, etab.)

C) ERABILERARAKO HITZARMENAK

Basauriko Kirolaren Udal Erakundeak hitzarmenak egin ahal izango ditu Klubekin, Eskola-ekipoekin, Ikastetxeekin, Kirol eta/edo kultura Elkarteekin, eta Erakunde Pribatuekin, kirol instalazioen erabilera erregulatzeko. Kasu horretan, Ordenantza honetan ezarritako tarifak murriztu ahal izango dira.

V. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAREN ZERBITZUA.

1.- Gizarte Zerbitzu eta Programen Banaketari buruzko Akordioa kontuan izanda, hain zuzen, Basauriko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundi txit Goreneko Ingurumen eta Lurralde Ekintza, eta Gizartekintza Departamenduaren artekoa, zeinak lehenago Udal honek eta aipatu Gizartekintzako Departamenduak sinatutako administrazioarteko Hitzarmenak ordezkatzan dituen, Etxez Etxeko Zerbitzuaren onuradunek ordaindu beharreko prezio publikoak, hurrengo formularen aplikaziotik ondorioztatzne direnak izango dira:

Urteko Sarrerak (F.U.N.) - indarrean dagoen G.G.S. partaide kopuruaren arabera

x	15	
	12	F.U.N.

=	R	100
---	---	-----

$$R \times \left(1 + \frac{\text{hilean, F.U.N.-ean zerbitzuko ordu kopuru osoa}}{100} \right) = \text{Hileko ekarpena.}$$

G.G.S. = Gizarteratzeko Gutxieneko Sarrea (Eusko Jaurlaritzaren Pobreziaren aurkako Plana)

F.U.N. = Familia Unitate Naturala

Formula horrek **Familia Unitate Naturalaren** ekarpen ekonomikoa ezartzen du, zeina ezingo den, inola ere, 1,80 €/hilean baino txikiagoa izan (aipatu kopurua eguneratua izan daiteke aurreko ekitaldiko KPI-arekin), eta aipatu zenbatekoa dagokion portzentaiaren arabera areagotuko da, hain zuzen, R-ren ordeztuz, 1,80 eurogatik ondorioztatzen dena, eta gainerakoari azken formula aplikatuztik ondorioztatzen dena.

Familia Unitate Naturala dela ulertuko da, senar-emazteek osatzen dutena, edo harreman iraunkorreko beste formularen bat, ezkontzaren antzeko edo berdintsua, eta 18 urtetik beherako seme-alaba emantzipatu gabeak osatzen dutena.

Familia Unitate Naturaleko baliabide ekonomikoak zehaztekoan, Oinarrizko Errentaren Gizarte Prestazioari buruz indarrean dagoen Aruategi erregulatzaillean erabakitakoa eukiko da kontuan (apirilaren 20ko 1981/1999 Dekretua eta arategi osagarria).

Hala ere, hurrengo kenketak eta irizpide osagarriak ezartzen dira:

Kenketak:

- 1) Minusbaliatua %65ean, edo gehiagoan, eta 65 urte baino gehiagoko pertsonak, zeinaren ezgaitasun-maila, GUTTMAN eskalaren bidez zehaztua, mailarik MUTURREKOENEAN kokatzen dena, hileko eta pertsonako, 120,20 €. Familia Unitate Natural berean, kontzeptu honengatik egin daitekeen gehienezko kenketa 2.884,86 eurotako izango da (hau da, 240,40 €/hilean).
- 2) Ohiko etxebizitzaren alogera, gehienez, 2.404,05 € urteko (hau da, 200,33 €/hilean)
- 3) Ohiko etxebizitzan inbertitutako kapitalaren amortizazioagatik eta interesengatik, gehienez, 2.404,05 € urtean (200,33 €/hilean)

Irizpide osagarriak:

- a) Ondasun Higigarriak, Oinarrizko Errentaren Gizarte Prestazioko Arautegiaren arabera neurtuko dira (apirilaren 20ko 1981/1999 Dekretua, eta arautegi osagarria), kapitalen interesak eta alogeren errentak salbu, izan ere horiek, diru-sarreraren zati izango baitira, laneko, pentsioko, etabarreko errendimendu gisa.
- b) Ondasun Higiezinak, Oinarrizko Errentaren Gizarte Prestazioko arautegiaren arabera, neurtuko dira baita (apirilaren 20ko 1981/1999 Dekretua, eta arautegi osagarria), ohiko etxebizitza kenduta, izan ere, hori salbuetsia geratuko baita, ondorio guztietarako. Horrela kalkulaturako balioa, inolako kenketarik gabe, Familia Unitate Naturalaren sarrera gisa kontatuko da.

VI. PERTSONA NAGUSIEN AISIALDIRA ZUZENDUTAKO TAILER ETA IKASTAROAK.

Pertsona nagusien astialdira dedikatutako Tailer eta Ikastaro bakoitzean matrikulatzeagatiko tasa, Jubilatuen Udal Egoitzetan edo Udalak helburu horretarako jartzen dituen lokaletan garatzen direnean.

Matrikulatzeagatiko eta ikastaro bakoitzeko tasa: 18,00€
